

## Aldundiak onespena eman dio N-124 errepidea, Armiñon eta Berantevilla arteko tartean, bikoizteko proiektuari

Aurreikusitako aurrekontua 15,6 milioi euro da

**Gasteiz, 2019ko ekainaren 11.** - Foru Gobernu Kontseiluak behin betiko onespena eman dio gaur N-124 errepidea, Armiñongo N-124 eta A-1 errepideen arteko lotunetik Berantevillara artean, bikoiztu eta autobia bihurtzeko proiektuari, 15,6 milioi euroko aurrekontuarekin.

Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailaren proiektu horretan jaso da N-124 errepidea bikoiztea 25,5 kilometro puntutik (N-124 eta A-1 errepideen arteko lotunea) 28 kilometro puntura (Lacorzanillako industrialdea). Lan horiei esker, 7,5 metroko zabalerako (2 x 3,75 metro) bi errei egingo dira noranzko bakoitzeko, bai eta 2,5 metroko kanpoko bazterbideak, metro bateko barruko bazterbideak eta metro erdiko bermak ere.

Era berean, gaur egungo errepidea zerbitzu bidetzat erabiliko da Lacervillako industrialdera sartzeko, lotura baten bidez, zeinak Lacorzanillako industrialdera iristea ere ahalbidetuko baitu. Beste zerbitzu bide bat ere jarriko da erabiltzeko moduan, laborantza lurretara eta finketara eta Pirotecnia Valecea enpresara sartzeko.

Azkenik, proiektuan jaso da Zambranako lotunea osatzea, Logroñotik etortzean herri horretara sartu ahal izateko eta handik Gasteizerantz irten ahal izateko.

Proiektu berri horrek era koherentean jarraipena emango dio eta osatu egingo du agintaldi honetan N-124 errepidea Berantevilla eta Zambrana artean bikoizteko eta Berantevillako saihezbidea zerbitzuan jartzeko egin den lana. Proiektua egikaritzeari esker, ia sei kilometroko autobia tartea izango da Arabako Errioxarako sarreran, eta segurtasun, erosotasun eta arintasun handiagoa eskainiko zaie egunero bide hori erabiltzen duten milaka pertsoneri.

Proiektuak A-1 eta AP-68 errepideen arteko konexioa hobetuko du N-124 errepidearen bidez, bai eta Armiñon eta Berantevillako industrialdeetarako



Arabako Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Álava

[www.araba.eus](http://www.araba.eus)

## Prensa Oharra Nota de Prensa

sarbideak ere, eta nekazaritzako ibilgailuak ibili ahal izatea eta eremu hartako finketarako lotura ere bermatuko du.

## Aldundiak Arabako Errioxako lineak sendotu ditu zerbitzu gehiago emanda eta toki gehiago daukan autobus bat jarrita

9. linea San Vicente de la Sonsierran sartuko da eta hirugarren ibilbidea izango du Bernedoko mendatetik igarota

Aldaketak datorren uztailaren 1ean sartuko dira indarrean

Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailak sendotu egingo du Arabako Errioxako foru garraioa, autobusak sarriago jarrita, bai eta toki gehiago daukan autobus bat ere. Gasteiz-Logroño 9. linean hobekuntza horiek sartuko dira; gainera, San Vicente de la Sonsierrari zerbitzu emango dio eta Oion zuzenean lotuko du Arabako hiriburuarekin, Bernedoko mendatetik igarota.

Foru Gobernu Kontseiluak gaur onetsi ditu aldaketa horiek, azken urte hauetan egon den gero eta eskari handiagoari erantzuteko –9. lineako erabiltzaile kopuru gero eta handiagoa % 60 baino gehiago da 2015etik– eta udalek eta bidaiariek eginiko eskaerak asebetetzeko. Datorren uztailaren 1etik aurrera sartuko dira indarrean aldaketak.

Berrikuntzetako bat da toki gehiago daukan autobus berri bat jarriko dela Gasteiz-Logroño 9. linean. Bi hiriak Conchas de Harok lotuko ditu lau aldiz egunean norabide bakoitzean. Autobus horrek 55 lagunentzako tokia izango du, eta haietatik bi toki mugikortasun urria duten pertsonentzako egokituak daude. Aldiz, orain dabilzan ibilgailuek 31 lagunentzako tokia baino ez daukate.

Era berean, eta beste autobus hori jarrita, linea horrek zerbitzu bat gehiago emango du egunean, astegunetan, norabide bakoitzeko; hain zuzen ere, 12 bidaia egingo ditu udan (apirilaren 16a eta azaroaren 14a bitartean) eta 10 bidaia neguan (azaroaren 15a eta apirilaren 15a bitartean), eta egunean hiru aldiz emango dio zerbitzua Errioxako San Vicente de la Sonsierrari.

Herri horretan sartzeak hango udalak eta udalerrri horretan bigarren etxebizitza daukaten gasteiztarren eskaerari erantzuten dio.



Arabako Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Álava

[www.araba.eus](http://www.araba.eus)

## Prentsa Oharra Nota de Prensa

Eta hirugarren hobekuntza da 9. lineak beste ibilbide bat egingo duela Bernedoko mendatetik igarota. Linea horrek Gasteiz eta Logroño lotzen ditu Conchas de Haroren bidez, urte guztian zehar, eta Herrerako mendatetik apirila eta azaroa bitartean, eta datorren uztailaren 1etik aurrera hirugarren ibilbidea ere egingo du Bernedoko mendatetik igarota; Araban dauden Bernedon, Iekoran eta Oionen geldituko da; baita Nafarroan dauden Meanon eta Lapoblacionen ere.

Hirugarren ibilbide hori funtzionamenduan egongo da udan, eta Oion eta Gasteiz zuzenean lotuko ditu bi aldiz egunean bi norabideetan; gainera, foru garraio zerbitzua sendotuko du zerbitzu emanaz Arabako Errioxako Kuadrillako Iekorari eta Mendialdeko Kuadrillako Bernedori.